

1. GAIA: ARGUMENTAZIOAREN TEORIA: PENTSAMENDU KRITIKOAREN GARRANTZIA GIZARTE LANGINTZAKO JARDUERA PROFESIONALARENTZAT.

1. SARRERA: ZERGATIK ARGUDIATU?

(Ongi) Arrazoitzea eta argudiatzea

- Arrazoitzea eta argudiatzea egunero egiten ditugun jarduerak dira.
- Hala ere, tamalez, askotan gaizki arrazoitzen eta argudiatzen dugu.
- Ongi arrazoitu/argudiatzeko, gaitasun zehatz batzuk ongi menperatu behar: arrazoiak eta ondorioak antzeman, inplizituki egindako onarpenak identifikatu, ondorioak atera, frogak eta baieztapenak ebaluatu...
- Gaitasun hauen guztien atzean hizkuntza modu garbian eta zehatzan erabiltzeko gaitasuna dago.
- Hizkuntza modu garbi eta zehatzan erabiltzeko gaitasuna, eta ongi arrazoitzeko eta argudiatzeko gaitasuna, egoera batetik bestera transferigarriak diren gaitasun zeharkakoak dira (ikasketak, lana, eguneroko bizitza, harreman pertsonalak...).

2. LOGIKA, DIALEKTIKA ETA ERRETORIKA

Logika: Giza ezagutza eta pentsamendua arautzen dituzten formak eta printzipio orokorrak aztertzen duen filosofiaren adarra, objektuei inolako erreferentzia egin gabe. Ideiak edo gertakariak modu koherentean, hau da, haien artean kontraesanik eman gabe, garatzen diren metodoak edo arrazonamenduak.

Dialektika: Egia ezagutzeko helburuarekin, elkarrekin hitz egitearen eta eztabaidatzearen teknika erretorikoa, zeinean aurkako arrazonamenduak eta argudioak aurkezten dira haien ebaluazioa egiteko.

Erretorika: Dotore eta zuzen idazteko edo hitz egiteko arteari erreferentzia egiten dioten arau edo printzipioen multzoa, atsegin emateko, hunkitzeko edo konbentzitzeko helburuarekin.

3. LOGIKAREN OINARRIZKO ZENBAIT KONTZEPTU

ARGUMENTAZIOAREN TEORIA 1: BAIEZTAPENAK ETA FROGAK

Baieztapenak: Denok dauzkagu pentsamendu, iritzi eta sineskera desberdinak gure buruari buruz, inguratzen gaituen munduari buruz eta errealitateari buruz.

Hauek, idatzitako/hitz egindako hizkuntzaren bidez egindako baieztapenen bidez adieraziak dira, gehienetan baieztapenak/ukazioak.

Gertakariei buruzko baieztapenak (deskribapenak) egi/faltsuak dira
Balioen inguruko adierazpenak (ebaluazioak) ez dago garbi egiazko/falstu diren.

Baieztapen adibideak:

- Entsalada hau benetan gozoa dago.
- Haur gehienak bi eskuekin jaiotzen dira.
- Barack Obama EE.BB.tako lehen lendakari beltza izan zen.
- Barack Obama EE.BB.tako lendakari hoberena izan da.
- Dirua da munduko gaitz guztien iturria.

Frogak: Baieztapen bat egi/faltsua den egiaztatzeko frogak behar.

Baieztapen bat egi/faltasua den egiaztatzeko ebidentziak eskaintzen dituzten gertakariak edo seinaleak dira.

Arrazionalki pentsatzen dugun pentsalari kritiko gisa, egindako baieztapenak haien alde frogak ditugulako egiazkoak direla ziurtatu behar dugu.

Frogak mota desberdinekoak izan daitezke:

1. Zentzumeneren bidez zuzenki espazioan eta denboran dauden izakien frogak.
2. Makina eta/edo tresna desberdinak erabiliz (mikroskopioak, argazkiak, bideoak, e.a.), zentzumeneren bidez zeharka espazioan eta denboran dauden izakien frogak.
3. Fidagarriak kontsideratzen ditugun pertsonen adierazpenetan oinarritutako frogak.
4. Ezagutza esparru batean adituak diren pertsonen adierazpenetan oinarritutako frogak. 5
5. Ezagutza zientifikoetan oinarritutako frogak.
6. Inplikazio logikoetan edo matematikoetan oinarritutako frogak.
7. Argudioetan oinarritutako frogak. Baieztapen batzuk frogan bidez defendatzea errazagoa da beste baieztapen batzuk baino.

ARGUMENTAZIOAREN TEORIA II: DESKRIBAPEN, EBALUAZIO ETA ARGUDIOAK

Deskribapenak: Gauza baten irudi edo ideia zehatza emateko helburuarekin, gauza hori nolakoa den azaltzen duen ahozko edo idatzizko diskurtsoa.

“Jon Kortajarenak 1,88 metro neurtzen ditu/Jennifer Connellyk 1,69 metro neurtzen ditu.”

Ebaluazioak: Zerbaiten edo norbaiten balioaren inguruan pertsona batek duen judizioa edo balorazioa. “Jon Kortajarena munduko gizon erakargarriena da/Jennifer Connelly munduko emakume erakargarriena da.”

Argumentazioa: Pertsona bat zerbaitez konbentzitzeko arrazoiak eta frogak eskaintzearen ekintza. “Altuak diren pertsonak baxuak direnak baino erakargarriagoak dira. Jon Kortajarena/Jennifer Connelly Mario Casas/Angelina Jolie baino altuagoa da. Beraz, Jon Kortajarena/Jennifer Connelly Mario Casas/Angelina Jolie baino erakargarriagoa da.”

ARGUMENTAZIOAREN TEORIA III: PREMISAK ETA ONDORIOAK

Argudio bat, baieztapen bat egiazkotzat jotzen ditugun beste baieztapen batzuetatik ondorioztatzen dela (edo ondorioztatu daitekeela) justifikatzeko ahalegina da.

Argudioen oinarrizko osagaiak premisak eta ondorioak dira. Premisak, ondorioaren baieztapena bermatzeko, justifikatzeko edo onartzeko arrazoiak eskaintzen dizkiguten baieztapenak dira.

Ondorioa premisengatik (baieztapenengatik) bermea, justifikazioa edo onartzeko arrazoiak jasotzen dituen baieztapena izanik. Adibidea:

1. premisia: Animalien sufrimendua murriztea ona da.
2. premisia: Barazkijalea edo beganoa bilakatzerakoan animalien sufrimendua murrizten duzu.

Ondorioa: Beraz, barazkijalea edo beganoa bilakatzeari zerbait ona da.

Argudiatzearen helburu nagusia beste pertsonak konbentzitzea da:

Norbaitek argudio bat aurkezten duenean, argudioaren ondorioaren egiaz gu konbentzitzen saiatzen ari da.

ARGUMENTAZIOAREN TEORIA IV: EGIA ETA BALIOZKOTASUNA

Logikaren oinarrizko kontzeptua "egia"ren kontzeptua da. Adibidez: "Arrainak uran bizi dira". EGIA. *Zer esan nahi du esaldi honek egiazkoa izateak?*
Arrainak uran bizi direla, mundua esaldiak dioen bezalakoa dela.

Egia (zentzu logikoan) banakoen sineskeretatik edo usteetatik independentea da: Arrainak uran bizi dira, hau da, guk horri buruz pentsatzen dugunak ez dauka inolako garrantziarik baieztapenaren egia zehazterakoan.

Argumentazioaren analisi logikoak argudioen premisen eta ondorioen arteko harreman formalak (loturak) aztertzen ditu, ez premisen eta ondorioen edukiak:

1. premisa: X oro Y da.
2. premisa: Z X da.
3. Ondorioa: Beraz, Z Y da

Argudio baten egiaren eta baliozkotasunaren artean desberdintzeko beste adibide bat:

1. premisa: Pedro Sánchezen txakurra arkakusoz beteta dago.
2. premisa: Arkakuso guztiak bakteriak dira.
3. Ondorioa: Beraz, Pedro Sánchezen txakurra bakteriaz beteta dago.

1. premisa: Oihanak txakurra dauka.
2. premisa: Bulldog frantses guztiak txakurrak dira.
3. Ondorioa: Oihanak bulldog frantses bat dauka.

Lehenengo argudioa baliozkoa da (argudioaren ondorioa premisetatik jarraitzen da), baina faltsua da (arkakusoak intsektuak dira, ez bakteriak).

Bigarren argudioa, aldiz, ez da baliozkoa (ondorioa ez da premisetatik jarraitzen: Oihanaren txakurrak ez du zertan nahi eta nahi ez bulldog frantsesa izan behar) baina egiazkoa izan daiteke (azken finean, Oihanaren txakurra bulldog frantses bat izatea posiblea da eta).

ARGUDIOAK: Baliozkoak edo ez baliozkoak dira

PREMISAK: Egiazkoak edo faltsuak dira.

ARGUMENTAZIOAREN TEORIA V: ARGUDIO DEDUKTIBOAK ETA ARGUDIO INDUKTIBOAK

Orokorrean, bi argudio mota nagusi daudela esan daiteke: deduktiboak (orokorretik partikularrera) eta induktiboak (partikularretik orokorrera).

Argudio deduktiboetan:

- Ondorioa nahi eta nahi ez premisetatik jarraitzen da.
- Premisa guztiak egiazkoak badira, ondorioa nahi eta nahi ez premisetatik jarraitzen denez, orduan, ezinezkoa da ondorioa faltsua izatea.
- Premisek nahi eta nahi ez ondorioa inplikatzeko dute, beraz, esan daiteke ondorioa nolabait premisetan jada inplizituki dagoela.

Argudio induktiboetan:

- Litekeena da ondorioa premisetatik jarraitzea (baina ez nahi eta nahi ez; gradu kontua da (gero eta adibide desberdin gehiago, gero eta aukera gehiago ondorioa egia izateko).
- Premisa guztiak egiazkoak izan arren, oraindik posiblea da ondorioa faltsua izatea.
- Premisek ez dute nahi eta nahi ez ondorioa inplikatzeko, beraz, ezin da esan ondorioa nolabait premisetan jada inplizituki dagoela (ez, gutxienez, argudio deduktiboetan esan dezakegun zentzu berdinean).

4. ARGUMENTAZIOAREN FALAZIAK

Falazia bat arrazoibidean/argudiatzean akats bat da. Falazia batean, norbaitek argudio bat aurkezten du zeinean ondorioa ustez premisetatik jarraitzen den baina, errealitatean, ondorioa ez da aurkeztutako premisetatik jarraitzen.

Bilatzen dena egia bada (pentsalari kritiko orok egin beharko lukeen bezala), falaziak beti ekidin behar dira, argumentazioan akats logikoak edo arazo larriak baitira.

Falaziak askotan nahi gabe egiten diren arren, gauzak (produktuak, zerbitzuak, ideiak, politikak, e.a.) saldu nahi dizkiguten pertsonak askotan falaziak nahita erabiltzen dituzte, saldu nahi diguten hori erosi behar diegula gu konbentzitzen saiatzeko.

Orokorrean, bi falazia multzo mota daudela esan daiteke: falazia formalak eta falazia informalak.

1. Falazia formalak arrazonamendu/argudio deduktiboetan ematen dira eta haiek antzemateko egin beharrekoa arrazonamenduaren/argudioaren forma logikoki baliozkoa den aztertzea da (falazia formalak baliozkoa ez den egitura/forma logikoa duten argudioak dira).
2. Falazia informalak arrazonamendu/argudio induktiboetan ematen dira eta haiek antzemateko egin beharrekoa arrazonamenduaren/argudioaren ondorioa premisetatik jarraitzen den ala ez aztertzea da, argudioaren edukia aztertuz.

Hitzen edo egitura gramatikalen erabilera ez zuzena, aurreiritzi edo auresuposizioetan oinarritutako ulerpen akatsak, gertakari edo iritzien adierazgarri okerrak, pentsamendu segida ez-logikoak... inplikitzen dituzte.

Zergatik da garrantzitsua falaziak ezagutzea?

- Falaziak ohikoak dira gure eguneroko arrazonamenduetan/argudiatzeetan eta, horregatik, politika publikoak, legeak, sineskera moral eta politikoak, e.a. baldintzatzen dituzte.
- Arrazonamendu/Argudiatze falazek (zeharka) min eta sufrimendu handiak eragin izan dituzte historian (mota guztietako sarraskiak justifikatzeko falaziak diren argudioak erabili izan dira).
- Modu ez zuzenean arrazoitzea/argudiatzea falazien kausa da. Orokorrean, argudio bat ebaluatzeke, bi pausotan oinarritutako prozesua egin behar da: Lehenengo pausoa: Ondorioa premisetatik jarraitzen dela ziurtatu. Bigarren pausoa: Premisa guztiak egiazkoak direla ziurtatu.
- Kritikoki pentsatzen duen edozeinek, bi pauso hauek jarraitu beharko lituzke argudioak ebaluatzerakoan (falaziak antzemateko, lehenengo pausoa funtsezkoa da, falazia bat ondorioa ustez premisetatik jarraitzen den baina, errealitatean, ondorioa aurkeztutako premisetatik jarraitzen ez den argudio bat baita).

FALAZIA FORMALAK	FALAZIA INFORMALAK
1. Disjuntzioaren baieztapenaren falazia. 2. Ondorioaren baieztapenaren falazia. 3. Aurrekaria ukatzea.	4. "Ad Hominem". 5. Txorimaloaren falazia. 6. Dilema faltsuaren falazia. 7. Falazia genetikoak. 8. "Tu Quoque" falazia. 9. "Ad Verecundiam" falazia. 10. "Ad Populum" falazia. 11. Anfibologia. 12. Tradizioan oinarritutako falazia. 13. Jokalariaren falazia. 14. Kausa faltsuaren falazia. 15. Malda irristakorraren falazia. 16. Erlazioaren bidezko erruaren falazia. 17. Orokortze azkarraren falazia. 18. Izatea/Behar izatea falazia. 19. Falazia moralista. 20. "Ad misericordiam" falazia.

Falazia formalak

1. Disjuntzioaren baieztapenaren falazia

Gauza baten ala bestearen aukera ematerakoan (ala biak), orduan, lehenengo gauza ematen bada bigarrena ematen ez dela ondorioztatzean oinarritzen da. Disjuntzio bat planteatzeak ("hau edo bestea") ez du nahi eta nahi ez inplikitzen elementu baten egiak beste elementuaren ukazio automatikoa ekartzen duenik.

Adibideak:

1. Obamarekin bi aukera daukazu. Edo gizon erlijiosoa dela sinesten duzu, edo gezurri hutsa dela sinesten duzu.
2. Anek katuak edo txakurrak gustuko ditu. Badakit Aneri katuak gustatzen zaizkiola. Beraz, Anek ez ditu txakurrak gustuko.

Adibide formala:

1. *Lehenengo premisa:* A edo B.
2. *Bigarren premisa:* A.
3. *Ondorioa:* Beraz, ez B.

Falazia honen jatorria "edo" lokailu disjuntiboaren anbiguotasunean aurkitzen da. "Edo" lokailu disjuntiboa bi esanahi ezberdinekin erabiltzen dugu: (1) Inklusiboa; eta (2) Bateriaezina.

"Edo" inklusiboa egiazkoa da hiru baldintza desberdinetan: (1) A egiazkoa da; (2) B egiazkoa da; eta (3) Bai A bai B egiazkoak dira.

Beste aldetik, "edo" bateraezina egiazkoa da bakarrik bi baldintzatan: (1) A egiazkoa da; eta

(2) B egiazkoa da. Kasu honetan, A eta B egiazkoak izango balira aldi berean, orduan, “A edo B” disjuntzio bateraezina faltsua izango litzateke.

Laburbilduz, “edo” modu inklusiboan interpretatzen denean, A eta B egiazkoak izan daitezke aldi berean, baina “edo” modu bateraezinean interpretatzen denean, A eta B ezin dira aldi berean egiazkoak izan.

Disjuntzioaren baieztapenaren falazia, modu okerrean “edo” inklusibo bat “edo” bateraezina izango balitz bezala interpretatzen dugunean gertatzen da.

Adibidez, lehenengo adibidean hirugarren aukera posible bat alde batean uzten da: Obama aldi berean gizon erlijioso eta gezurtia izatea. Bigarren adibidean ere hirugarren aukera posible bat alde batean uzten da: Anek katuak eta txakurrak gustuko edukitzea.

Silogismo disjuntibo oro ez da falazia bat. Begiratu hurrengo argudioa:

1. *Lehenengo premisa:* Edo Txillardegia bizirik dago edo hilik dago. 2.

Bigarren premisa: Txillardegia hilik dago.

3. *Ondorioa:* Beraz, Txillardegia ez dago bizirik.

Argudio hau zuzena da lehenengo premisak “edo” bateraezin egokia erabiltzen duelako. Izan ere, bateraezinak diren bi aukera planteatzen ditu: norbait hilda dagoenean, norbait hori ezin da inolaz ere bizirik egon.

2. Ondorioaren baieztapenaren falazia

Bi gertakarien arteko kausa-ondorio erlazioa onartzerakoan, ondorioa ematen bada, kausa ere ematen dela ondorioztatzean oinarritzen da ondorioaren baieztapenaren falazia.

Falazia hau “p ematen bada, orduan q ematen da” baieztapenen moduko baldintza adierazpenen forman eman ohi da. Ondorioa baieztatzen denean, aurkakoa ere egiazkoa dela ondorioztatzearen akatsa ematen da: “q ematen bada, orduan p ematen da”. Baina, noski, “p ematen bada, orduan q ematen da” adierazpenaren kontrakoak ez du zertan nahi eta nahi ez egiazkoa izan behar.

Adibideak:

1. Euria egiten badu, espaloiak bustitzen dira. Espaloiak bustita daude. Beraz, euria egiten du.

2. Espainian baldin banago, European nago. European nago. Beraz, Espainian nago.

Adibide formala:

1. *Lehenengo premisa:* p ematen bada, q ematen da.

2. *Bigarren premisa:* q ematen da.

3. *Ondorioa:* Beraz, p ematen da.

Ondorioaren baieztapena logikoki baliozkoa ez den argudioa da, izan ere, premisen egia ez baitu ondorioaren egia nahi eta nahi ez bermatzen (premisak egiazkoak izan daitezke eta ondorioa faltsua).

Adibidez, lehenengo adibidean, espaloiak bustita egotearen gertakaritik ezin dugu nahi eta

nahi ez ondorioztatu euria egin duenik, espaloiak bustita egoteko beste aukerak baitaude: garbitzaileak, goizeko ihintza, e.a. Bigarren adibidearen kasuan, ondorioak ere ez du zertan nahi eta nahi ez egia izan beharrik, posiblea baita Europan egotea baina ez Espainian.

3. Aurrekariaren ukazioaren falazia

Aurrekariaren ukazioaren falazia honetan oinarritzen da: ondorio batek premisa bat jarraitzen duela baieztatzen bada, orduan, premisa faltsua bada, ondorioa ere faltsua izango dela baieztatzean. Hortaz, aurrekaria ukatzen bada, ondorioa ere ukatu behar dela modu okerrean ondorioztatzean oinarritzen da falazia hau. Baina, noski, argi eta garbi, honek ez du zertan nahi eta nahi ez honela izan behar.

Adibideak:

1. Elurra egiten badu, hotza egiten du. Ez du elurrik egiten. Beraz, ez du hotzik egiten.
2. Ikasten badut gaitutiko dut. Ez dut ikasi. Beraz, ez dut gaitutiko.

Adibide formala:

1. *Lehenengo premisa:* A ematen bada, orduan B ematen da.
2. *Bigarren premisa:* Ez da A ematen.
3. *Ondorioa:* Beraz, ez da B ematen.

Ondorioaren baieztapena logikoki baliozkoa ez den argudioa da, izan ere, premisen egia ez baitu ondorioaren egia nahi eta nahi ez bermatzen; hau da, premisak egiazkoak izan daitezke eta ondorioa faltsua.

Adibidez, lehenengo adibidean, guztiz posiblea da elurra egiten ez egotea eta, hala eta guztiz ere, hotza egitea. Bigarren adibidean, lehenengo premisak esaten diguna da ikasi ezkerro gaitutiko dudala, baina premisak ez digu esaten zer gertatuko den ikasten ez badut. Ez ikasteak ez du nahi eta nahi ez inpliketzen suspendituko dudarik, izan ere, posiblea da azterketan zortea edukitzea, edo irakaslea konturatu gabe kopiatzea, edo ikasi gabe ezagutza nahikoak jada edukitzea, e.a.

Falazia informalak

4. “Ad hominem”

“Ad hominem” falaziak garrantzian funtsatutako falaziak dira. “Ad hominem” falaziek baieztapen edo ikuspegi baten faltsutasuna ontzat jotzen dute baieztapenaren/ikuspegiaren defendatzaileari erreparatuz. Helburua, normalean, baieztapen edo ikuspegi zehatz bat defendatzen duen pertsonaren izena zikintzea da, onarpen soziala ez duen eta ustez ezkorra den pertsona horren ezaugarri edo sineskera bat azpimarratuz. Pertsona horrek planteatzen duen arazoari edo objektioei argudioen bidez aurre egin beharrean, egiten dena pertsona erasotzea da (haren sinesgarritasuna, zintzotasuna eta/edo izaera erasoz). Baina, noski, norbaitek hizlariaren/idazlearen izen ona erasotzeak ez digu ezer esaten hizlariaren/idazlearen baieztapenaren egiari edo faltsukeriari buruz.

Adibideak:

1. 1. pertsona: “Estatuak ez ditu hiritar guztien oinarrizko beharrak asetzen”.
2. pertsona: “Zuk beti zure oinarrizko beharrak ase baino gehiago izan dituzu, beraz, ez dakizu ezer Estatuak asetzen dituen ala ez dituen oinarrizko beharrei buruz”.
2. Nancy Pelosi, alderdi demokrataren bozeramailea, Artikoan petrolioa eta gasa aurkitzen saiatzeko esplorazioen kontra azaldu izan da beti. Baina, besterik espero al genezake? Izan ere, San Franciscoko hiriaren ordezkaria da eta San Francisco ekologistaz beterik dago. Esplorazioen kontra azalduko ez balitz, hurrengo hauteskundeetan ez litzateke berriz hautatua aterako. Beraz, haren argudioak gai honen inguruan ez lirateke kontuan hartu beharko.

Egitura tipikoaren adibidea:

1. X pertsonak Y baieztapena egiten du.
2. X pertsona, ustez, zalantzazkoa/susmagarria da a, b, c, e.a. arrazoiengatik. 3. Beraz, Y baieztapena zalantzazkoa/susmagarria da.

Adibidez, lehenengo adibidean, bigarren pertsonak lehenengoa erasotzen du, oinarrizko betebeharrak asetzeko arazoak sekula izan ez dituela leporatuz. Hala ere, honek ez digu deus esaten lehenengo pertsonak egiten duen baieztapenaren egiaren edo faltsukeriaren inguruan (Estatuak hiritar guztien beharrak asetzen ez dituela).

Bigarren adibidean, alderdi demokratako bozeramailea den Nancy Pelosiri erasotzen zaio, ustez, ezkutuko interes bat baitauka Artikoan petrolioa eta gasa aurkitzen saiatzeko esplorazioen kontra azaltzeko, bere desio nagusia hurrengo hauteskundeetan berriz ere hautatua izatea baita (eta, esplorazioen alde azalduko balitz, hauteskundeetan berriz hautatua izateko aukerak galduko lituzkeela auresuposatzen da, bozkatzeko dioten pertsonen interesen kontra joango baitzen). Egia da askotan uste dugula politikariek ia edozein gauza egiteko prest egongo liratekeela berriz ere hautatuak izateko. Hala ere, honek ez du nahi eta nahi ez inplikatzeko Pelosiren argudioak esplorazioen kontra kontuan hartu behar ez direnik, haren ustezko interes pertsonalek ez baitute inolaz ere inplikatzeko bere argudioak hobeagoak ala okerragoak direnik.

5. Txorimaloaren falazia

Txorimaloaren falaziaren funtsezko ezaugarria aurkariaren argudioen edo ikuspegiaren karikatura egitea da, aurkariaren argudioak edo ikuspegia desitxuratuz, handizkatuz eta/edo aldatuz. Aurkariaren argudioak edo ikuspegia desitxuratzeko moduak desberdinak izan daitezke: (1) Aurkariaren argudioak edo ikuspegiak benetan direnak baino ahulagoak edo eztabaidagarriagoak izan daitezen aurkeztea; (2) Aurkariaren ikuspegiaren kasu edo adibide okerrena ala muturrekoena bilatzea eta kasu edo adibide guztien adierazletzat jotzea; eta (3) Ikuspegi barregarri bat asmatzea eta aurkariari egozte.

Estrategia hau argumentazioaren falazia da ustez argudiatzen duenak ez dituelako aurkariaren argudioak arrazoi bidez kritikatzeko, aurkariaren argudioen bertsio faltsu eta ahul bat baizik, aurkariaren argudioak inozoak direla pentsaraziz gainerakoei. Baina, noski,

kritikoki argudiatzen dugunean, gure aurkarien argudio hoberenei aurre egiten saiatu beharko ginateke, ez ahulenei edo desitxuratzen errazagoak direnei.

Adibideak:

1. 1. pertsona: “Arriskutsua da nerabeak oporretan bakarrik joaten uztea”.
2. pertsona: “Gure seme-alabak etxean giltzaperatzea kaltegarria da haien garapen emozionalarentzat”.
2. 1. pertsona: “Egungo krisialdi ekonomikoa kontuan hartuta, gaur egungo gastu militarra mantentzea onartu ezin dugun luxua da. Diru hori beharrezkoagoak diren gauzetan inbertitu beharko genuke: hezkuntza, osasun publikoa, langabetuei diru-laguntzak, e.a.”.
2. pertsona: “Hortaz, gure defentsak alde batera uztearen eta gainerako herrialdeen aurrean ahul azaltzearen aldekoa zara”.

Lehenengo adibidean, bigarren pertsonak lehenengoaren baieztapena desitxuratzen du, lehenengo pertsonak ez baitu inoiz defendatzen gure seme-alabak etxean giltzaperatu beharko genituzkeenik. Lehenengo pertsonak arazorik gabe onartu lezake nerabeak diren seme-alabak bakarrik etxetik ateratzea, baina ez oporretan bakarrik joaten uztea. Bigarren adibidean, nahita ala nahi gabe, bigarren pertsonak lehenengoaren baieztapena gaizki ulertzen du, izan ere, posiblea da gastu militarra mugatzea (guztiz ezabatu ordez) gure defentsak eta segurtasuna alde batera utzi gabe.

6. Dilema faltsua

Dilema faltsuak falaziak dira zuzena ez den hurrengo arrazoibidea erabiltzen dutelako: arazo edo auzi batek soilik bi konponbide edo aukera desberdin dituela baieztatzen dute baina, errealitatean, planteatutako bi konponbide edo aukerez aparte bestelako konponbide edo aukerak daude. Dilema faltsuek, beraz, arazo/auzi konplexuak termino sinpleegietara murrizten dituzte edo, nahita planteatzen direnean, zilegi diren bestelako aukerak nahita baztertzen dituzte. Orokorrean, dilema faltsuak aukeraketa dikotomia muturreko bat aukera posible bakar gisa planteatzen den bakoitzean sortzen dira.

Adibideak:

1. Edozein naziok, munduko edozein lekuan, erabaki behar du orain. Edo gurekin zaude, edo terroristekin zaude.
2. Barack Obama: presidente handia ala EE.BB.tako historiaren presidente hobereana?

Adibidez, lehenengo kasuan, dilema faltsu bat planteatzen da nolabaiteko marra metaforikoa marrazten delako, zeinaren arabera munduko gainontzeko nazioei esaten zaie laguntza falta jarduera terroristen aldeko ekintza bezala interpretatuko dela. Baina, noski, errealitatean nazioek beste nazioak jasandako erasoei erantzuteko duten modua askoz konplexuagoa da. Adibidez, neutraltasuna kontuan hartzen ez den hirugarren aukera bat da, baina argudioak, zilegi ez den moduan, bi aukera soilik planteatzen ditu: edo gurekin edo gure aurka. Bigarren adibidean, Obama presidente handia ala EE.BB.tako historiako presidente hobereana izan den erabakitzearen auzia planteatzen da. Baina auzia horrela planteatzea tranpa da, bi aukera

soilik eskaintzen baitira errealitatean aukera onargarri gehiago daudenean. Adibidez, guztiz posiblea da pentsatzea Obama presidente txarra izan zela eta, ondorioz, presidente handia ala EE.BB.tako historiaren presidente hoberena izan denik ukatzea.

Dilema oro ez da dilema faltsua. Errealitatean soilik bi aukera baldin badaude, orduan, aukera horiek soilik aurkeztea ez da falazia bat.

7. Falazia genetikoa

Falazia genetikoa ondorio baten alde edo kontra ondorioaren jatorrian oinarrituz soilik argudiatzen denean ematen da. Batzuetan ideia, teoria edo erakunde baten balioa defendatzen/kritikatzen da haren jatorriari edo aurreko egoerari erreferentzia eginez eta, beraz, gaur egungo egoerari inolako erreferentzia egin gabe. Orokorrean, jatorrizko egoeraren ebaluazio positiboa/negatiboa gaur egungo ebaluaziora pasa egiten da falazia honetan. Baina, argi eta garbi, gauzen jaiotzaren edo gauzak iraganean nolakoak ziren inguruko judizioek ez daukate zerikusirik gaur egun gauza horiek merezi duten ebaluazioarekin. Adierazpen baten jatorriak gehienetan ez dauka inolako garrantzirik adierazpenaren egibalioa zehazteko. Hau da, adierazpen edo teoria baten jatorriaren (edo historiaren) azalpena ematea baliotsua izan daiteke noski, baina ez du zertan nahi eta nahi ez adierazpen edo teoria horren egia edo balioa determinatzen.

Falazia genetikoak, askotan, hurrengo forma orokorra izan ohi du:

1. *Lehenengo premisa:* Aren jatorria B da.
2. *Bigarren premisa:* B kritikagarria da arrazoi desberdinengatik.
3. *Ondorioa:* Beraz, A ere kritikagarria da arrazoi berdin horiengatik.

Adibideak:

1. Ez duzu ezkontza eraztuna jarriko ezta? Ez al dakizu ezkontza eraztunak, hasiera batean, emakumeen orkatilan, senarrengandik urrundu ez zitezen, jartzen ziren kateak sinbolizatzen zituela?
2. Ulertezina da Ionek Fisikako Nobel Saria irabazi izanak. Elkarrekin eskolara joan ginen eta klaseko tontoena bera zen.

Lehenengo adibidean, ezkontza eraztunak jatorrian emakumeen orkatilan, senarrengandik urrundu ez zitezen, jartzen ziren kateak sinbolizatzeak ez du nahi eta nahi ez inplikatzeko gaur egun ezkontza eraztuna eramaten duen pertsona oro sexista edo emakumeen menpekotasunaren aldekoa denik. Guztiz posiblea da ezkontza eraztuna eramatearen praktikaren esanahi sinbolikoak denborarekin aldatu izana, jatorrian zuen esanahi sinbolikoa galduz. Hau da, praktikak jatorrian zuen esanahi sinbolikoak ez du zertan egungo esanahi sinbolikoaren berdina izan beharrik. Bigarren kasuan, posiblea da iraganean Ion klaseko tontoena izatea eta, hala eta guztiz ere, horrek ez du halaberrez inplikatzeko gaur egun pertsona izugarri inteligentea edo zientzialari arrakastatsua ez denik. Beste modura esanda, Ion txikia zenean (haren jatorrian) tontoa izateak ez du nahi eta nahi ez inplikatzeko gaur egun izugarri inteligentea izan ezin duenik.

Falazia genetikoan erori nahi ez badugu, argudio baten ondorioa ondorio gisa azaltzen den adierazpenaren aldeko/kontrako froga bakarra haren jatorrian oinarritzea ekidin behar dugu.

8. “*Tu Quoque*” falazia

“*Tu quoque*” falazia jasotako akusazio edo kritika bat argudioekin/arrazoiekin erantzun beharrean, atentzioa desbideratzean oinarritzen da, atentzioa desbideratzeko aurkariak ere akusazioak/kritikak leporatzen duen jokabide berdina egin duela baieztatuz.

“*Tu quoque*” falazia “*ad hominem*” falazien azpimultzoa da. Falazia hau eztabaida politikoetan oso ohikoa da, parte batek bestea “baita zu ere!” eta/edo “zu gehiago!” erantzunekin erasotzen duenean ematen baita. Hortaz, “*tu quoque*” falaziaren ezaugarri bereizgarria “*ad hominem*” argudio bati beste “*ad hominem*” argudio batekin erantzuten zaiola da.

“*Tu quoque*” falaziak hurrengo forma orokorra izan ohi du:

1. *Lehenengo pertsona*: bigarren pertsonaren ikuspegia gezurtatzen/kritikatzen saiatzen da ez haren kontra argudioak/arrazoiak adieraziz, bigarren pertsona zuzenean erasotuz baizik.
2. *Bigarren pertsona*: lehenengo pertsonaren “*ad hominem*” argudioari erantzuten dio lehenengo pertsonak ere planteatutako kritika/jokabidea egin duela adieraziz.

Adibideak:

1. Lehenengo pertsona: Badakit Heideggeren filosofia gustuko duzula Ion, baina ezin dugu haren filosofia serio hartu, izan ere, orain badakigu Heidegger Nazi alderdiaren kide aktiboa izan zela. Hortaz, garbi dago pertsona ona ez zela.
Bigarren pertsona: Zer?! Hori sekulako tontakeria da, bereziki zuk esaten baduzu. Aurreko egunean entzun zintudan Voxen alde bozka aktiboki eskatzen.
2. PSOEko kidea: Zuek, ETAren alde zeundetenak, hiltzaile eta terrorista hutsak besterik ez zarete.
Ezker abertzaleko kidea: Eta zuek, GALa antolatu eta finantziatu zenutenak, baita ere.

Lehenengo kasuan, lehen pertsonak “*ad hominem*” argudio bat planteatzen du Heideggeren filosofiaren kontra: Heideggeren filosofia serio hartu behar ez dugula aldarrikatzen du Heidegger nazia izan zelako. Bigarren pertsonak, Heidegger nazi izanak haren filosofiari inolako baliorik ez kentzen ez gehitzen ez diola defendatu ordez, beste “*ad hominem*” argudio batekin erantzuten dio, lehenengo pertsona zuzenean erasotuz ultraeskuinekoa izateagatik (naziak bezala). Bigarren adibidean, PSOEko kide batek ezker abertzaleko kide bat erasotzen du bigarren honi terrorismoaren babesle izana leporatuz (hau da, “*ad hominem*” argudio bat planteatuz). Ezker abertzaleko kideak, terrorismoa arrazoen eta argudioen bidez defendatu beharrean ala ezker abertzaleko kide izateak terrorismoa babestu izana nahi eta nahi ez inplikatzeko ez duela erantzun ordez, PSOEkoari haiek ere terrorismoa babestu zutela erantzuten dio, GALa finantziatu eta babestu baitzuten

(beste “*ad hominem*” argudio bat).

“*Ad hominem*” argudioekin gertatzen den moduan, “*tu quoque*” argudio guztiak ez dira falaziak, hau da, batzuetan argudio hauek erabiltzea zilegi izan daiteke. Hala ere, kurtso honetan ez gara ñabardura konplexu horietan sartuko.

9. “*Ad Verecundiam*” falazia

“*Ad verecundiam*” falazia ondorio, tesi edo sineskera bat justifikatzeko autoritate

desegokiari apelatzen diogunean ematen da. Falazia pertsona batek esaten duena, autoritate bat izateagatik, onartu behar dugula ondorioztatzean oinarritzen da. Baina, noski, pertsona bat autoritate bat izateak ez du inplikatzeko pertsona hori eztabaidatzen den auzian aditu denik (autoritateak ezjakinak izan daitezke eta, ondorioz, oker egon daitezke).

Ondorio, tesi edo sineskera bat autoritate baten iritzietan oinarritzea ez da zilegi ustezko autoritate hori, auzitan dagoen gaiari dagokionez, autoritate garrantzitsua ez denean.

Maila psikologikoan, “ad verecundiam” falazia gizakiok hurrengo ezaugarriak dituzten pertsonen jokabidea imitatzeke eta haien iritzia onartzeko dugun joerarengatik azaltzen da: (1) Trebeak/Adituak iruditzen zaizkigunak; (2) Gu bezalakoak direnak; eta (3) Nolabaiteko estatus positiboa egotzen diegunak. Gainera, psikologiak nolabaiteko estatus positiboa egotzen diegun pertsonari arreta eta sinesgarritasun handiagoa eskaintzen diegula esaten digu, auzitan dagoen gaiaren inguruan adituak ez badira ere.

Adibideak:

1. Depresiotik ateratzeko Prozac hartzen hasi beharko nukeela uste dut, gaur goizean telebistan mediku bat Prozac iragartzen ikusi dut eta.
2. Begira, agintzen didatena besterik ez dut egiten. Tiro egitea agintzen badidate, tiro egiten dut. Desfilatzea agintzen badidate, desfilatzen dut. Ez dagokit niri gerra hau bidezkoa den ala ez erabakitzea.

Lehenengo kasuan, ez da guztiz arraroa telebistan medikuak botikak iragartzen ikustea. Iragarki horiek askok partekatzen dugun hurrengo usteaz probetxua ateratzen dute: medikuen autoritatean konfiantza izan dezakegu. Baina, kasu honetan, arazoa da botika bat hartzearen aldeko eta kontrako gainontzeko arrazoi guztiak alde batera uzten direla. Telebistako iragarkian azaltzen den doktoreak ez du autoritaterik gudan, izan ere, ez gaitu pertsonalki ezagutzen eta ez du gure historia medikua ezagutzen. Hortaz, titulua duen medikua izan arren, horrek ez du nahi eta nahi ez inplikatzeko ezagutzen ez dituen eta inoiz pertsonalki aztertu ez dituen pertsonari aholku medikuak emateko autoritatea duenik. Bigarren adibidea zailagoa da. Alde batetik, soldaduek ematen zaizkien aginduak bete behar dituztela uste dugu orokorrean, bestela, arriskutsuak izango baitziren haien buruentzako eta haien ejertzitoko gainontzeko kideentzako. Hala eta guztiz ere, nazismoaren kasuan gertatu bezala adibidez, besteen eskuetan erabaki moral zailak uzteko joera handia daukagu gizakiok eta honek gure erantzukizun moralak alde batera uztea inplikatzeko du. Horrela, askotan, autoritate batek agindu izanagatik, soldadu eta hiritarrek sekulako sarraskiak egin eta justifikatu dituzte. Baina, noski, ekintzen erantzukizuna indibiduala da eta autoritate batek guri agindu bat emateak ez du nahi eta nahi ez inplikatzeko aukerarik izan behar hori betetzeko betebeharra daukagunik.

“Ad verecundiam” falaziarekin lotutako arazo interesgarria da, berez, kasu askotan gure sineskerak edo tesiak justifikatzeko autoritateetara jotzea zilegi izan daitekeela. Adibidez, zulo beltzen inguruko eztabaida batean, zilegi da fisikan autoritate bat den Stephen Hawkingen autoritatera jotzea, zulo beltzen inguruan munduko autoritate nagusietako bat baitzen. Hortaz, tesi, sineskera edo ondorio bat justifikatzeko autoritate batek hori esateak batzuetan zilegi izan daiteke eta beste batzuetan ez; hau da, autoritatearen zilegitasuna eta garrantzia auzi zehatz horretarako ebaluatu behar dugu. Hala ere, kontuan izan beharko genuke beti pertsona indibidual batek ezin duela inoiz bere kabuz soilik auzi baten egia edo gezurra (ontasuna edo kaltegarritasuna) ziurtatu. Adierazpen baten egia edo faltsutasuna zehazteko egin behar duguna ez da solik norbaiten autoritatera jotzea, haren adierazpenaren

edukia ebaluatzea ere ezinbestekoa da.

Batzuetan desadostasun garrantzitsuak egon daitezke autoritateen zilegitasuna onartzerako orduan. Adibidez, norbaitek esan dezake: “Nola dakit abortua immorala dela? Aita Santuak horrela diolako!”. Argudio hau zilegi izan daiteke eta ongi funtzionatu dezake katolikoa den norbaitekin kritikoki eztabaidatzen bada, izan ere, hasiera batean behintzat, katolikoek Aita Santua autoritate moral gisa onartzen dute. Baina argudioak ez du funtzionatuko eta ez da zilegi izango katolikoa ez den norbaitekin eztabaidatzen denean, Aita Santua katolikoentzat autoritate morala den bitartean, beste askorentzat ez baitauka inolako autoritate moralik. Gauzak horrela, askotan, kritikoki eztabaidatzen hasi baino lehen ezinbestekoa da onartzen diren eta garrantzitsutzat jotzen diren autoritateen inguruko akordioa lortzea.

10. “Ad Populum” falazia

Adierazpen bat arrazoien/argudioen bidez defendatu beharrean, ustez jendearen gehiengoak auzi horren inguruan duen iritzian oinarrituz soilik defendatzen denean, “ad populum” falazia gertatzen da. Hau da, “ad populum” falazian argudio baten ondorioa justifikatuta dagoela kontsideratzen da jendearen gehiengoak ondorio hori onartzen duelako. Orokorrean, “ad populum” argudioek hurrengo forma orokorra izan ohi dute:

1. *Lehenengo premisa*: Jende gehienak X pentsatzen du.
2. *Ondorioa*: Beraz, X egiazkoa/zuzena da.

Adibideak:

1. Justiziaren eta injustiziaren inguruan dauden iritzi desberdintasunak handiak izanik ere, badirudi unibertsaiki onartzen dela bidezkoak ez diren legeak existitu daitezkeela eta, ondorioz, gauza batek legezkoa ala legez kanpokoa izateak ezin du justiziaren azkeneko irizpidea izan.
2. Jendearen gehiengoak Jainkoren batean sinisten du eta pertsona horiek guztiek ez dute elkar ezagutzen. Honek ezin du kointzidentzia izan: Jainkoak existitu behar du.

Lehenengo adibidean, John Stuart Millék erabilitako argudioa dena (filosofo handiek ere falaziak erabiltzen dituzte haien argudiatzeetan), “ad populum” falazia baten aurrean gaude mundu guztiak bidezkoak ez diren legeak existitu daitezkeela sinesten duenez, bidezkoak ez diren legeak existitzen direla ondorioztatzen delako. Baina, argi eta garbi, mundu guztiak bidezkoak ez diren legeak existitzen direla sinisteak ez du halabeharrez inpliketzen bidezkoak ez diren legeak existitzen direnik, mundu guztia okertuta egon baitaiteke auzi honetan (edo, beste modura esanda, errealitatea gehiengoak pentsatzen duenatik independentea da). Bigarren kasuan, Jainkoaren existentzia defendatzen da jendearen gehiengoak Jainkoren batean sinisten duelako, baina, noski, jendearen gehiengoak jainkoetan sinisteak ez du nahi eta nahi ez inpliketzen jainkoak existitzen direnik.

Argumentazio batzuetan, gehiengoaren sineskeretara jotzea zilegi izan daiteke. Aipatzen den gehiengoaren taldea diziplina baten barruan autoritatea daukaten pertsonen osatuta badago, gehiengoaren sineskeretan oinarritutako argudioak justifikatuta egon daitezke. Adibidez, zilegi da eboluzioaren teoria egiazkoa dela sinestea gaur egungo biologo gehienek egiazkoa dela esaten dutelako (biologoak baitira auzi honen inguruan autoritatea dutenak, biologian titulu bat baitaukate; noski, biologoek ez dute autoritaterik beste ezagutza esparruetan). Hala ere, gomendagarria da beti horrelako ondorioak bestelako argudio independenteekin aldi berean

justifikatzen saiatzea.

11. Bi gaizkik ongi bat egiten dute

Filosofia moralean/politikoan eta erretorikan, “bi gaizkik ongi bat egiten dute” dion ideiak (eta haren aurkakoa dena: “bi gaizkik ez dute ongi bat egiten”) arau moral bati erreferentzia egiten dio: gaizki dagoen ekintza bat egiten bada, gaizki dagoen beste ekintza batek lehenengo ekintza txarra konpentsatzeko edo konpontzeko balio du. Termino erdi-formaletan, falaziak normalean hurrengo forma dauka:

$$\text{Gaizki bat} + \text{Gaizki bat} = \text{Ongi bat}$$

Bi gaizkik ongi bat egiten dutela dion tesia garrantziarekin lotutako falazia gisa sailkatu ohi da, zeinean ekintza txar bat/kalte bat egin izaneko akusazioari antzeko akusazio batekin erantzuten zaion (“tu quoque” falazia “bi gaizkik ongi bat egiten dute” falaziaren azpimultzoa da), lehen momentuan planteatutako arazotik edo akusaziotik atentzioa desbideratzeko helburuarekin.

Bi gaizkik ongi bat egiten dutela dion ideia antitesia, hau da, bi gaizkik ongi bat egiten ez dutela dion ideia, erantzun gisa erabili ohi da pertsona/erakunde batek gaizki bat egin izanak guk gaizki bat egitea justifikatzen ez duela aldarrikatzeko:

$$\text{Gaizki bat} + \text{Gaizki bat} = \text{Bi gaizki}$$

Arrazoibide hau asko erabiltzen da, adibidez, haur txikiei arau moralak irakasteko, hala nola: aurretik jo gaituen haur bati jotzea gaizki dagoela irakasteko. Ekintza immoral batek ez du erantzun gisa beste ekintza immoral bat justifikatzen (hasiera batean behintzat).

Adibideak:

1. *1. pertsona*: Ez zenioke zure enpresari lapurtu beharko, ilegala da. *2. pertsona*: Nire enpresak zergekin iruzurrak egiten ditu, eta hori ere ilegala da. *2. 1. pertsona*: Sánchez presidenteak gezurra esan zuen Kongresuaren aurrean egindako adierazpenean. Gaizki egon zen hori egitea.

2. pertsona: Baina Rajoy presidente ohiak ere gezurra esan zuen Kongresuaren aurrean duela urte gutxi batzuk!

Lehenengo kasuan, enpresa batek zergekin iruzurrak egitea eta hori ilegala izateak ez du justifikatzen, hasiera batean behintzat, langileak enpresari lapurtzea bezalako ekintza ilegala egitea zilegi denik (gutxienez, bigarren pertsonak “legea betetzeko betebeharra daukagu besteek legea betetzen ez badute ere” bezalako printzipio moral bat onartzen badu). Kasu honetan duguna bi ekintza immoral dira, ez lehenengo ekintza immoral konpentsatzen duen ekintza bat. Noski, bigarren pertsonak “zilegi da ekintza ilegalak egitea legeak aurretik bete ez dituzten pertsonak zigortzeko” bezalako printzipio morala onartzen badu, orduan, pertsona hori ez da falazia logiko batean eroriko. Goian azaldutako elkarrizketa motzetik ezin dugu jakin zer den bigarren pertsonak sinesten duena.

Bigarren kasuan, Rajoy presidente ohiak duela urte batzuk Kongresuaren aurrean gezurra esan izanak ez du justifikatzen Sánchez presidenteak ere gezurra esateak (gehienez, inpliketzen duena da Sánchez ez dela Rajoy baino hobeagoa Kongresuari egia esateari dagokionez). Kasu honetan duguna gezurtiak eta, ondorioz, immoralak diren bi pertsona

dira, ez Kongresuan gezurrak esatearen arazoari konponbide bat. Bigarren pertsonak bere erantzuna planteatutako auzi moraletik (Sánchez presidenteak Kongresuan gezurra esan izana gaizki dago) atentzioa desbideratzeko bitarteko gisa erabiltzen du.

“Bi gaizkik ongi bat egiten dute” ideia falazia bat bada, orduan, badirudi erlijio batzuen oinarritzko ideia moral batzuk desegokiak direla. *Biblian*, Lebitarrenan 24: 19-21n, hurrengo baieztazen da adibidez:

Norbaitek herritarra zauritzen badu, zauri berdina egingo diote berari: haustura hausturaren ordain, begia begiaren ordain, hortza hortzaren ordain; egin duen zauria egingo diote. Aberea hiltzen duenak, aberea itzuliko du; gizakia hiltzen duena heriotzara eramango dute.

Ongiaren, justiziaren eta zigorraren ikuspegi honek, “talioaren legea” bezala ezagutzen dena, mendekua gauzak edo jasandako kaltea berdintzeko bide gisa ulertzen du. Gaur egun, zigor-justiziarekin lotutako ikuspegi garaikide batzuek ideia berdina aldarrikatzen dute, hala nola heriotza zigorra defendatzen duten ikuspegi batzuk:

Pertsona errugabe bat eraila (biktima) + Pertsona errudun bat eraila (hiltzailea) =
Justizia

Baina, zer da bi heriotza hauek (bata bestearen atzetik) berdintzen dutena? Berdintzen dutena justizia eta eskubideak baldin badira, orduan, “bi gaizkik ongi bat egiten dute” baieztapea ez da falazia bat. Baina, bi heriotza horiek justizia edo eskubideak berdintzen dituztenik onartzea/zehaztea oso eztabaidagarria denez, arrisku handia dago falazia baten aurrean egoteko.

Hala ere, garbi dago mendebaldeko kulturaren behintzat, kalte bat konpontzeko larritasun antzeko beste kalte bat egin behar dela dion ideia (proportzionaltasun printzipioa) oso zabaldua dagoela. “Bi gaizkik ongi bat egiten dute” dion ideia falazia bat eta, ondorioz, okerra izango balitz, orduan, mendebaldeko kulturaren oinarritzko ideia moral bat auzitan geldituko litzateke.

12. Anfibologia

Anfibologia falazia sintaktikoa da. Hizkuntzaren esaldiek hitz eta elementu desberdinez osatuta daude (izenak, aditzak, konektoreak, puntuazio zeinuak, e.a.). Elementu hauek ezin dira edozein moduan ordenatu/egituratu, ordena edo egitura desberdinek esanahi desberdinak inplikatzeko baitituzte. Ordenamendu edo egitura ez-argiek eragiten dituzten esanahi anbiguotasunak esaldi edo pasarte baten interpretazio desberdinak eragin ditzakete pertsona ezberdinen eta honek, batzuetan, zalantzazko inferentziak egitera eramango gaitzake. Anbiguotasunarekin nahita jokatzeko denean, helburua normalean entzulea/irakurlea nahastea izan ohi da.

Anfibologiaren falazia, esaldi baten esanahia, esaldian dauden elementu linguistikoen egituraketa edo ordenamendu sintaktiko traketsarengatik, zehaztugabea edo anbigua denean ematen da, bereziki anbiguotasunak zalantzazkoak diren inferentziak egitera eramaten gaituenean.

Anfibologietan aurkitu daitezkeen anbiguotasunek, normalean, akats gramatikaletan daukate jatorria (izenordain baten aurrean aurkitzen den aurrekari anbiguo bat, aditzondoan eta adjektiboaren konbinazio arraroak, funtsik gabeko subjektu-objektu erlazioak, erreferente

anbiguoak, e.a.), baina bestelako tranpa linguistikoek ere anfibologiak sortu ditzakete: esaldi arraroak, esanahi desberdinak dauzkaten esaldi konposatuak, hitz ordenamendu traketsak, e.a.

Esanahi anbigua daukaten esaldien adibide batzuk:

1. “Mirenek bere autoan eraman zuen Irati”.
2. “Goiz batean elefante bat pijaman tirokatu nuen. Pijama nola jarri zuen, hori ez dakit”.
3. “Garun faltak ikerketa oztopatzen du”.
4. “Txakurra salgai. Denetarik jaten du. Haurrak oso gustuko ditu”. 5. “Hondartzan bakarrik aste bete emango dut”.

Nabarmendu behar da anfibologia kasu guztiak ez direla hutsalak edo dibertigarriak. Adibidez, modu traketsean idatzitako kontratuen interpretazioak arazo larriak eragin ditzake. “Nire milioi bat euroko ondasuna eta nire txakurra Mikel eta Anderri uzten dizkiet” bezalako esaldi batek adibidez, interpretazio desberdinak izan ditzake. Zentzu batean, ulertu daiteke milioi bat euroko ondasuna Mikelentzat dela eta txakurra Anderrentzat. Beste zentzu batean, aldiz, bai milioi bat euroko ondasuna baita txakurra ere Mikel eta Anderrentzat dela interpretatu daiteke. Konjuntzioaren esanahia interpretatzeko moduaren arabera, esaldiak inplikazio praktiko oso desberdinak dauzka.

Argudio baten egituran anbiguoak diren esaldiak sartzen direnean, falaziak sortzen dituzten interpretazio arazoak ematen dira. Anfibologian erortzen den arrazoibide bat egiazkoa izan daiteke interpretazio batean eta faltsua beste batean. Premisa gisa egiazkoa den interpretazioan baieztatzen denean eta faltsua den interpretazioan oinarrituz ondorio bat ateratzen denean, orduan, anfibologiaren falazian erortzen da argudioa.

Adibideak:

1. Gizon orok emakume bat maite du. Mikelek Jennifer Connelly maite du. Beraz, gizon orok Jennifer Connelly maite du.
2. Laranja guztiak frutak dira. Mikelen kotxea laranja da. Beraz, Mikelen kotxea fruta bat da.

Lehenengo kasuan, anbiguotasuna sortzen da lehenengo esaldia bi modu desberdinetan interpretatu daitekeelako. Alde batetik, gizon guztiek emakumeren bat maite dutela dion esanahia; hau da, gizon bakoitzak gutxi gora behera emakume desberdin bat maite duela. Bestetik, ulertu daiteke baita ere esaldiak adierazten duena gizon guztiek emakume berdina maite dutela dela. Bigarren modu honetan interpretatu ezker, argudioan egiten den moduan, falazia sortzen da, argudioaren ondorioa argi eta garbi faltsua baita (argudioa baliozkoa izan arren). Arazoa lehenengo esaldiaren interpretazioan dago.

Bigarren adibidean, anbiguotasun arazoa lehenengo eta bigarren esaldietan “laranja” hitzaren esanahi desberdinak direla eta sortzen da. Lehenengo esaldiak “laranja” deitzen diren fruten azpimultoari erreferentzia egiten dio, bigarren esaldiak “laranja” izeneko koloreari erreferentzia egiten dion bitartean. Kasu honetan, argudioaren ondorioa okerra da bi gauza desberdinez hitz egiten ari garelako, baina argudioan gauza berdina balira bezala interpretatzen dira (izen berdina baitaukate).

13. Gehiegizko sinplifikazioa

Gehiegizko sinplifikazioaren falazia auzi edo arazo bat modu sinpleegian aurkezten denean ematen da, auziarekin edo arazoarekin lotuta dauden konplexutasun guztiak alde batera utziz.

Egunero gehiegizko sinplifikazioekin bonbardatuak izaten gara, hala nola: “pobrezia alferkeriaren ondorioa da”, “aberastasuna lan gogorretik dator”, “haragia jatea erailketa da”, “krisialdi ekonomiko globala aberatsen diruzalekeri mugagabearen ondorioa da”, “kapitalismoak langileak esplotatzen ditu”, e.a.

Adibideak:

1. Vox immigrazioaren kontrako alderdi politikoa da eta, ondorioz, bozka ematen badiezu arrazista hutsa zara.
2. Munduko zientzialari hoberenek ezin dute ziurtasun osoarekin jakin etzi Sevillan euria egingo duen ala ez. Hortaz, inork ezin du jakin ehun urte barru gertatuko dena klima-aldaketarekin.

Lehenengo adibidean, Vox immigrazioaren kontrako alderdia izateak ez du inplikatzten jendeak Voxi immigrazioaren asuntoagatik nagusiki bozka ematen dionik (posiblea izan arren, noski). Izan daiteke jendeak Voxi nagusiki bozka ematea, adibidez, independentismoaren aurrean erakusten duen muturreko jarrerarengatik eta Espainiaren batasunaz egiten duen defentsa sutsuagatik. Hala eta guztiz ere, jendeak Vox immigrazioaren aurrean duen jarreragatik nagusiki bozkatuko balu ere, horrek ez luke halabeharrez inplikatu Voxen boto-emaeleak arrazistak direnik (izan ere, agian haien immigrazioaren kontrako arrazoiak bitartekoen izaera murriztarekin lotuta egon daitezke arrazarekin lotutako auziekin baino gehiago). Argudioa, ondorioz, giza ekintzen motibazioen gehiegizko sinplifikazioan oinarritzen da.

Bigarren kasuan, garrantzitsuak diren konplexutasunak alde batera uzten dira, adibidez, klima lokalaren eta klima globalaren arteko oinarritzko bereizketa. Klima maila lokalean aurreikustea oso zaila izateak ez du nahi eta nahi ez inplikatzten maila globalean ematen diren aldaketa klimatikoak aurreikusi ezin daitezkeenik. Beraz, argudioa fenomeno klimatikoen gehiegizko sinplifikazioan oinarritzen da.

Horrelako gehiegizko sinplifikazioak guztiz ohikoak dira argumentazio politikoetan; adibide garbia da gobernu mota hoberena komunista dela baieztatzen denean, edo faxista, edo sozialdemokrata, edo liberala edo, azken finean, beste edozein.

Batzuetan, baina, zentzua dauka gauzak gehiegi sinplifikatzten saiatzeak. Mundua leku oso konplexua eta ulertzen zaila izan daiteke, hortaz, batzuetan faktore batzuk alboratu behar ditugu mundua ulertzen eta aurreikusten saiatzeko. Hala ere, beste kasu askotan gehiegizko sinplifikazioak nahita erabiltzen dira jendea engainatzeko eta banatzeko helburuekin. Beste behin ere, politikariak bereziki onak dira hau egiten. George W. Bush EE.BB.tako lehendakari ohiak, adibidez, irailaren 11ko atentatuaren ondoren hurrengo adierazi zuen: “edo gurekin zaude, edo terroristekin zaude” (gogoratzen baduzue, hau dilema faltsuaren adibide garbi bat da). Baieztapen honek, “terrorearen kontrako gerra”ren aurrean zilegi baina konplexuagoak diren bestelako ikuspegi asko alde batean uzten ditu. Argi eta garbi, posiblea da Estatu Batuen kanpo politikaren jokabide asko kritikatzeko eta, aldi berean, terroristen ekintzak kondenatzea.

Gehiegizko sinplifikazioaren kasu berezi bat “kausa bakarraren falazia da”. Falazia hau fenomeno konplexuak kausa bakar sinpleegi baten bidez azaltzen saiatzen garenean ematen

da. Kasu honetan, emaitza edo ondorio partikular batek kausa sinple bat duela soilik onartzen dugu, errealitatean emaitzan/ondorioan kausa konplexu anitz dezente inplikaturik daudenean. Suposa dezagun, adibidez, urakan batek amildegiaren ertzean eraiki dudana bizi naizen etxea suntsitzen duela. Nire lagunei horrelako zerbait esan diezaiek: “urakan madarikatu horrek etxetik gabe eta pobrezia gorrian utzi nau”. Baina, argi eta garbi urakana nire etxearen suntsiketa azaltzeko faktore beharrezkoa izanda ere, ez da nagoen egoera ekonomiko kaxkara azaltzeko faktore nahikoa. Guztiz probablea da bestelako faktore kausalak ere garrantzitsuak izatea: (1) amildegi baten ertza bezalako leku arriskutsu batean etxe bat eraikitzeko erabakia hartzea; (2) etxea eraikitzeko beste leku bat bilatzeko ahokatzeko zidaten arkitektoei jaramonik ez egitea; (3) etxearentzako aseguruia ez egitea dirua beste gauza batzuetan gastatzeko, e.a. Hortaz, urakana ez da nire egungo egoera ekonomiko txarra azaltzen duen faktore kausal bakarra. Aipatutako faktore guztiak faktore kausal garrantzitsuak dirudite eta azalpenean alde batera uzteak gehiegizko sinplifikazio okerra inplikatu du.

Kausa-efektu erlazioen inguruan dugun ulerpenak mundua ulertzen eta munduarekin harremanetan jartzen laguntzen gaitu. Gehiegizko sinplifikazioak, orduan, arriskutsuak dira. Izan ere, fenomeno bat ulertzeko faktore kausalak ongi ulertzen ez ditugunean edo modu sinpleegian aurkezten ditugunean, errealitatea gaizki ulertzeko arrisku askoz handiagoa daukagu. Orduan, arazo bat interpretazio kausal oker edo sinpleegi horretan oinarrituz konpontzen saiatzen bagara, gure ekintzek seguruenik ez dute eraginkortasunik izango edo, okerrago oraindik, konpontzen saiatzen ari garen arazoa konpontzeko kaltegarriak izateko arriskua izango dute.

14. Kausa faltsuaren falazia

Orokorrean, kausa faltsuaren falazia ematen da premisen eta ondorioaren arteko erlazioa errealitatean existitzen ez den ustezko konexio kausal baten menpe dagoenean.

Argudio bat hiru modu ezberdinetan erori daiteke kausa faltsuaren falazian: *post hoc ergo propter hoc*; *cum hoc ergo propter hoc*; eta kausa komun bat alde batera uztea. Gu lehenengo adibidean soilik zentratuko gara.

Post hoc ergo propter hoc esaldi latindarraren esanahi literala “honen ondoren, beraz, honengatik” da. Falazia, orduan, A eta B gertakarien arteko lotura kausala existitzen dela baieztatzen denean ematen da, batez ere A gertakaria B gertakariaren aurretik gertatu delako:

1. A gertakaria B gertakaria baino lehenago gertatu zen.
2. Ondorioz, A gertakariak B gertakariaren kausa izan behar du.

Kausak, noski, ondorioak baino lehen gertatzen dira, baina hau ez da nahikoa bi gertakarien artean erlazio kausala dagoela ondorioztatzeko. Beharrezkoa dena bi gertakari horien artean nolabaiteko lotura kausala dagoela frogatzeko ebidentziak dira.

Adibideak:

1. *Lehenengo premisa*: Artikora egin duzuen espediziotik salbu bueltatzeko otoitz egin dugu.

Bigarren premisa: Artikora egin duzuen espediziotik salbu bueltatu zarete. *Ondorioa*: Beraz, Artikora egin duzuen espediziotik salbu bueltatzearen kausa zuen

ongizatearen alde guk egindako otoitzak dira.

2. *Lehenengo premisa*: Azkeneko bi asteetan ez nintzen amona bisitatzen joan.
Bigarren premisa: Duela egun batzuk amona gaixotu eta hil egin zen. *Ondorioa*:
Nire amona penaz hil zen bisitatzen joaten ez nintzaiolako.

Lehenengo kasuan, zalantzan jartzeko modukoa da Artikora joandako pertsonak salbu bueltatu direnik pertsona batzuk haien ongizatearen alde otoitz egin zutelako (bereziki Jainkoan sinesten ez duen edozeinentzat). Azken finean, espediziora joandako pertsonak salbu bueltatzearen gertakaria eta gertakari hori baino lehen otoitz egitearen gertakaria gertatzea ez da ebidentzia nahikoa otoitzek funtzionatu zutela eta dena ongi ateratzearen kausa izan zirela ondorioztatzeko.

Bigarren kasuan, moralki gaitzesgarria edo sozialki desegokia izan daiteke amona bisitatzen ez joatea baina, argi eta garbi, zalantzarikoa da nire amonaren heriotzaren kausa nik azkeneko bi asteetan bisitan joan ez izana izatea. Pertsonok penaz hil gaitzkeenik zalantzan jarri daiteke (gure buruak abandonatzearen edo isolamenduaren muturreko tristuraren ondorioek, denborarekin, heriotzan bukatu dezaketen arren), hau da, ez dirudi lotura kausal zuzena dagoenik penaren eta pertsonen heriotzen artean. Orduan, azkeneko bi asteetan nire amona bisitatu ez izana (lehen ematen den fenomeno) eta ondoren nire amona hil izana (ondoren ematen den fenomeno) ez da froga nahikoa nire amona nik gehiago bisitatu ez nuelako hil zela ondorioztatzeko.

15. *Malda irristakorraren falazia*

Malda irristakorraren falaziak kausalitate faltsuaren falazien azpimultzo bat dira. Malda irristakorraren falazia, argudio baten ondorioa gertaera kate batengatik ustez ematen denean baina gertaera kate hori benetan ematen dela ziurtatzeko froga nahikoak ez ditugunean suertatzen da.

Malda irristakorraren argudioek hurrengo izaera izan ohi dute: batek P_1 proposizioa onartzen badu, orduan, P_2 proposizioa ere onartu beharko du, eta P_2 proposizioa onartzeak aldi berean P_3 proposizioa onartzera behartzen gaitu, e.a., harik eta argi eta garbi moralki onartezina eta/edo okerra den Z proposizio batera ailegatzen garen arte. Modu honetan, malda irristakorraren argudioek ekintza, praktika edo politika bat immoraltzat/okertzat jotzen dute ez horrenbeste ekintza, praktika edo politika horren berezko izaeragatik, praktika horrek ustez nahi eta nahi ez izango lituzkeen ondorio ezkorrengatik baizik (edo, gutxienez, ekintzaren, praktikaren edo politikaren ondorio probablengatik).

Adibideak:

1. Netflixen bezeroarentzako arreta zerbitzuak telefonoan itxoiten uzten zaituenean, haserretzen zara. Haserretzen zarenean, oso urduri jartzen zara. Oso urduri jartzen zarenean, istripuak gertatzen dira. Istripuak gertatzen direnean, begian partxe batekin amaitzen duzu. Begian partxe bat eramaten duzunean, jendeak uste du tipo/a gogorra zarela. Jendeak tipo/a gogorra zarela uste duenean, beste pertsona batzuk zeinen gogorra zaren jakin nahi dute. Eta, beste pertsona batzuk zeinen gogorra zaren jakin nahi dutenean, lurrean konortetik gabe amaitzen duzu. Ez amaitu lurrean konortetik gabe. Ahaztu Netflix eta pasa zaitez HBOra.
2. Ezkontza homosexualak onartzen badira banakoen askatasun sexuala errespetatzeko beharrezko pauso gisa, hurrengo pausoak intzestua, pedofilia, zoofilia eta bestelako

sexu jarduera antinaturalak onartzea izango dira.

Lehenengo kasuan, argudioaren ondorioak (HBOra pasa beharko zinateke) berme oso ahula jasotzen du arrazoibide kate kausal bat osatzen duten premisen partetik. Izan ere, hasierako gertakaritik (Netflixeko bezeroentzako arreta zerbitzuak telefonoan itxoiten uzten zaituenean haserretzearen gertakizuna) abiatzen den gertakizun kausalen katea oso inprobablea eta ahula da.

Bigarren kasuan, argudioaren arabera, ezkontza homosexualen aldeko hasierako jarduera legalak, azkenean, intzestuaren, pedofiliaren, e.a. legezko onarpenera eramango gaitu. Ondorio hau argi eta garbi moralki onartezina denez, ez genituzke ezkontza homosexualak legalizatu beharko. Baina ez daude gertakari katearen lotura kausalak bermatzen dituzten frogak; hau da, lehenengo gertakariaren (ezkontza homosexualak legeztatzea) eta ustezko ondorioen (intzestua, pedofilia, e.a. legeztatzea) arteko lotura kausala ez da existitzen edo oso ahula da.

Katean funtzionatzen duten arrazoibide hauek, hala ere, ez dira beti falazia bat. Katean ematen diren gertakarien arteko lotura kausalak ondorioztatzeko froga sendoak baldin badaude, orduan, argudioa zuzena izango da.

16. Erlazioaren bidezko erruaren falazia

Erlazioaren bidezko erruaren falazia hurrengo logika okerrean oinarritzen da: norbait edo zerbait (A) beste norbait edo zerbaitekin (B) (ustez) erlazionatuta dagoenez, lehenengo norbait edo zerbaita (A) bigarren norbait edo zerbaitaren (B) ezaugarri berdin guztiak dauzka edo onartzen ditu.

Falaziak hurrengo eskema jarraitzen du askotan:

1. Norbait edo zerbait (A) beste norbait edo zerbaitekin (B) erlazionatuta dago. 2. Norbait edo zerbait B X egiteaz erruduna da.
3. Beraz, norbait edo zerbait A ere X egiteaz erruduna da.

Falazia hau askotan erabiltzen da gure gizartean; askotan talde sozialei aplikatzen zaie, kanpaina politikoetan erabiltzen da, negozio harremanetan ere, epaitegietan, e.a.

Adibideak:

1. Mikelek ezaugarri desberdin asko partekatzen ditu Hitlerrekin. Wagneren musika gustuko du eta barazki-jalea da. Beraz, argi eta garbi Mikel ere nazia da. 2. Sánchezek zuritu ezin daitekeena zuritu nahi du. Odolez zikindutako eskuak nahiago ditu zuriz margotutakoak baino. Horiz margotutako eskuak nahiago ditu espainiar guztiei irekitako eskuak baino.

Lehenengo kasuan, Mikeli, Hitlerri bezala, Wagneren musika gustatzeak eta biak barazki-jaleak izateak ez du nahi eta nahi ez inplikatzeko Mikelek ere nazia izan behar duenik. Guztiz posiblea da Mikelek Wagneren musika gustuko edukitzea eta barazki-jalea izatea eta, hala ere, Hitlerren ideia politikoak gaitzestea. Ezaugarri batzuk partekatzen badituzte ere (hau da, haien artean erlazio bat egon arren), Mikelek ez ditu zertan nahi eta nahi ez Hitlerren ezaugarri edo kualitate guztiak onartu edo partekatu behar. Mikel Hitlerrekin erlazionatuz, igorleak Mikel ere (Hitler bezala) nazi izateaz erruduna dela dion ideia zabaldu

nahi du, baina logikoki ondorioa ez da nahi eta nahi ez premisetatik jarraitzen.

Bigarren adibidean, igorleak Pedro Sánchez Bildurekin eta independentismo katalanarekin erlazioatzen saiatzen da, hiruak oinarrian berdinak direla edo, gutxienez, onartezinak diren helburuak (terrorismoaren justifikazioa eta independentzia, adibidez) partekatzen dituztela eta, ondorioz, errudunak direla dion ideia zabaltzeko asmoarekin. Baina, noski, Pedro Sánchezek Bildurekin eta/edo alderdi nazionalista katalanekin negoziatzea eta akordioak sinatzea ez du halabeharrez inplikatzeko alderdi horien ikuspegi politiko guztiak onartzen dituenik. Posiblea da Sánchezek alderdi horien proposamen batzuk onargarritzat jotzea beste batzuk ukatzen dituen bitartean.

Erlazioaren bidezko erruaren falazia, askotan, isuri kognitibo implizituetan (aurreiritzietan) funtsatutako erreakzio automatikoa da. Inferentzia automatiko oker hauek ekiditeko edo, gutxienez, murrizteko helburuarekin, ezinbestekoa da asoziazio hauek izan ditzaketen ondorio ezkorrez ohartzea. Aurreiritzietan oinarritutako ondorio automatiko azkarrak atera beharrean, gure argudio zein ondorioak ongi frogatutako gertakarietan oinarritu beharko genituzke. Gehiegizko sinplifikazioak eta erdeinak ekiditea ezinbestekoa da erlazioaren bidezko erruaren falazian ez erortzeko, horrek gainera eztabaida aberatsagoak, sendoagoak eta interesgarriagoak inplikatuko bailuke. Argudioaren funtsa pertsona edo gauza batek (ustez) dituen erlazioetan oinarritzen denean pertsonan edo gauzan bertan zentratu ordez, igorlea erlazioaren bidezko erruaren falazian erortzen da.

17. Orokortze azkarraren falazia

Orokortze azkarraren falazia nahikoak ez diren datuetatik edo frogetatik ondorio orokor bat induktiboki ondorioztatzen denean suertatzen da. Nahikoak ez diren datuetatik edo frogetatik ondorioak ateratzen ditugunean, ondorioak okerrak izateko aukerak asko handitzen dira. Beste modu batera esanda, antzekoak diren, baina nahikoak ez diren, kasu multzo batetik abiatuz, justifikatuta ez dauden ondorioak ateratzen dira antzeko kasu guztientzat.

Orokortze bat lagin baten inguruko ezagutzetatik/datuetatik talde oso baten inguruko adierazpen batera pasatzen den argudio bat da. Noiz dira orokortzeak baliozkoak eta noiz ez? Suposa dezagun, adibidez, lehen hezkuntzako irakasle batek zuzentzeko dituen klase berdineko 25 azterketetatik 10 zuzendu dituela. Orain arte zuzendu dituen 10 azterketetan, ikasle guztiek 3. galdera gaizki erantzun dutela ikusten du. Kasu honetan, posiblea da irakasleak klaseko gainontzeko ikasleek ere 3. galdera gaizki erantzun dutela ondorioztatzea. Orokortze hau justifikatuta egongo litzateke. Zergatik? Alde batetik, laginak ongi errepresentatzen du talde osoa. Irakasleak klasean irakatsitakoa ezagutzen duenez, bere ikasleak ezagutzen dituen eta klasean antzeko ariketa egin zutenean ikasleek ongi erantzun zutela dakienez, galdera modu traketsen idatzita dagoela ondorioztatu dezake. Beste aldetik, talde osoa 25ekoa bada, 10eko lagin bat nahiko lagin handia da, lagin horretan oinarritutako orokortzea justifikatuz. Izan ere, estatistikaren oinarritzako printzipioetako batek laginak ikertu nahi den taldearen adierazlea izan behar duela dio. Kasu honetan, 25 pertsonetatik 10eko lagin bat nahikoa dirudi.

Orokortze azkarregia ematen da, orduan, orokortzeak baliozkoak izateko gutxieneko baldintzak betetzen ez direnean. Adibidez, laginaren edo aukeratutako taldearen inguruan ezagutza nahikoak ez ditugunean, aukeratutako lagina taldearen adierazlea ez

denean, laginaren tamaina nahikoa ez denean, e.a.

Kasu gehiegitan, taldeen edo gertakarien inguruan sineskerak bereganatzen ditugu orokortze azkarregiak egiten dituzten ikerketetan, inkestetan edo adierazpenetan oinarrituz, gehienetan, erabilitako laginak adierazgarriak izateko txikiegiak direlako. Honek moralki nahiz epistemologikoki onartezinak diren taldeen inguruko estereotipoak, etiketak, e.a. bultzatzen ditu. Gertatu ohi den moduan, orokortze azkarregiaren falazia askotan erabiltzen da politikan eta komunikabideetan. Nahita egiten denean, talde sozial batzuei buruz muturreko ideia sinpleak zabaltzeko helburuarekin egin ohi da.

Adibideak:

1. Mexikok jendea bidaltzen digunean, ez digu jende hoberena bidaltzen. Arazo asko dituzten pertsonak bidaltzen dizkigu eta pertsona horiek haien arazoak guri ekartzen dizkigute. Drogak ekartzen dizkigute. Krimenak ekartzen dizkigute. Bortxatzaileak dira. Eta haietako batzuk, suposatzen dut, pertsona onak izango dira.
2. Hiru mutil-lagun izan ditut eta hiruek beste pertsonekin harreman sexualak edukiz engainatu naute. Garbi dago gizon guztiak naturaz desleialak direla.

Lehenengo kasuan, EE.BB.tara emigratzen duten mexikarren inguruko orokortze bat adierazten da. Kasu honetan, ez dakigunez ze datutan ala ikerketetan oinarritzen den orokortze hau, ezin dugu ziurtasunez esan orokortzea azkarregia den ala ez. Izan ere, azken finean, posiblea da EE.BB.tara emigratzen duten mexikarren gehiengoa kriminalak izatea. Baina, horrelako orokortze bat egiteko oinarri enpiriko sendoa beharrezkoa da eta, froga sendoak ematen ez zaizkigunez, ez guke onartu beharko, poblazioaren talde oso bat kriminalizatzeko eta estereotipatzeko arriskua baitago. Horrelako orokortzeak arruntak dira, adibidez, emigrante batek egindako krimen baten aurreko erreakzio gisa. Baina, noski, emigrante batek ala emigrante multzo batek krimen bat egiteak ez du nahi eta nahi ez inplikatzeko emigrante guztiak ala emigranteen gehiengoa kriminalak direnik.

Bigarren adibidean, pertsonak orokortze bat planteatzen du haren argudioaren ondorio gisa: gizon guztiak naturaz desleialak dira. Nola ailegatu da ondorio horretara? Haren esperientzia propioan oinarrituz. Hiru mutil-lagun izan ditu eta hiruek beste pertsonekin sexu-harremanak izanez engainatu dute. Baina, noski, hiru mutil-lagunek engainatu izana ez du nahi eta nahi ez inplikatzeko mutil-lagun guztiak desleialak direnik, orokortzea ez baitago justifikatuta. Orokortzea egiteko kontuan hartzen den lagina hiruek pertsonakoa da soilik eta hori, argi eta garbi, murriztegia da gizonen talde osoaren inguruan ondorioak ateratzeko. Orokortzea, hortaz, azkarregi egin da eta horregatik logikoki onartezina da.

18. Izatea/Behar izatea falazia

Izatea/Behar izatea falazia sortzen da gauzak modu batean izateagatik, gauzak horrela izan behar dutela ondorioztatzen denean. Falazia gertakizunetatik balioetara jauzi egitean oinarritzen da, hau da, ondorio moralak egoera baten deskribapenetik eratortzen direnean. Hau logikoki onartezina da. Gauza bat modu batekoa izatea ez du nahi eta nahi ez

inplikatzen gauza hori horrela izan beharko lukeenik. Gainera, ezinezkoa da logikoki ondorio normatibo bat inferitzea premisa deskriptiboetatik abiatuz.

Izatea/Behar izatea falazia falazia moralistaren kontrako falazia da.

Adibideak:

1. Marihuana naturalki hazten den landare bat besterik ez da, beraz, ez dauka inolako zentzurik ilegala izateak.
2. 1978ko Espainiar Konstituzioaren 1.2. artikulua dio subiranotasun nazionala espainiar herriak duela, Estatuaren botereak herritik baitatoz. Beraz, argi dago independentismoa moralki onartezina dela.

Lehenengo adibidean, marihuana landare bat izateak (produktu natural bat, hortaz) eta naturalki hazteak ez du nahi eta nahi ez inplikatzen ilegala izatea zentzugabea denik. Gauza bat da gauza bat naturala izatea eta beste gauza desberdina gauza hori ontzat jo behar dugunik. Argudioa gertakari baten deskribapenetik (marihuana naturala da) ondorio juridiko batera pasatzen da (eta, beraz, normatiboa den ondorio batera: ez litzateke landare bat ilegalizatu beharko). Baina, noski, gauzak modu batez izateak (kasu honetan, naturalak) ez du halabeharrez inplikatzen normatiboki horrela izan beharko liratekeenik (legalak).

Bigarren kasuan, 1978ko Espainiar Konstituzioaren 1.2. artikulua subiranotasun nazionala espainiar herriak duela baieztatzeak ez du nahi eta nahi ez inplikatzen independentismoa moralki onartezina denik. Argudioa gertakari baten deskribapenetik (Konstituzioaren 1.2. artikulua esaten duena) balio judizio batera pasatzen da (independentismoa immoral dela dion ebaluazioa [suposatzen da Konstituzioaren 1.2. artikulua kontra joaten delako]). Gauzak gaur egun modu batekoak izateak (kasu honetan, Konstituzioak lurraldearen subiranotasuna espainiar herriak duela baieztatzeak) ez du halabeharrez inplikatzen gauzak horrela izan behar dutenik edo gauzak horrela izatea moralki zuzena denik (Estatuaren barruan ustez existitzen diren bestelako nazioen hiritarrek haien ustezko lurralde nazionalaren barruan subiranoak izan behar ez dutenik).

Izatea/Behar izatearen falazia gutxienez bi arrazoiengatik garrantzitsua da: (1) naturala dirudi gure sineskera moralak gertakarietan oinarritu behar direla pentsatzea, gutxienez aurreiritzi hutsak baino gehiago izan daitezela nahi badugu, horregatik, gertakarietatik betebeharrak inferitu ezin baditugu, zaila da ikustea nola etikak izan dezakeen nolabaiteko oinarri faktikorik; eta (2) gertakarien deskribapenetatik ondorio normatiboetara pasatzen diren argudio mota batzuk erabili ohi dira gaur egun moralki susmagarriak diren praktikak defendatzeko (“horrelakoak izan dira hemen gauzak beti, beraz, hau da moralki zuzena dena”).

19. Falazia moralista

Falazia moralista ematen da gauza bat modu batekoa izan beharko lukeela uste izateagatik, gauza hori errealitatean horrelakoa dela ondorioztatzen denean. Modu berdinean, falazia gertatzen da baita ere gauza bat errealitatean modu batekoa izatea ezinezkoa dela ondorioztatzen denean gauza hori horrelakoa izan beharko ez lukeelako. Baina, argi eta

garbi, gauzak modu batean izan beharko luketela (edo izan beharko ez luketela) pentsatzeak ez du inplikatzeko errealitatean gauzak horrelakoak direnik (edo ez direnik). Falazia moralista izatea/behar izatea falaziaren kontrakoa da, ondorio deskriptiboak ateratzen baititu adierazpen normatiboetatik abiatuz. Bi kasuetan, akats logikoa adierazpen normatiboen/ebaluatiboen eta errealitatearen arteko lotura zuzena egitean oinarritzen da.

Termino erdi-formaletan, falaziak hurrengo formak izan ohi ditu:

1. Gauzak X modukoak izan beharko lukete.
2. Beraz, gauzak X modukoak dira.

Edo

1. Gauzak ez lukete X moduak izan beharko.
2. Beraz, gauzak ez dira X modukoak.

Adibideak:

1. Ikasleek Filosofia eta Gizarte Langintza ikasgaiko azterketan kopiatzea gaizki dago. Beraz, garbi dago ikasleek ez dutela Filosofia eta Gizarte Langintzako ikasgaiko azterketetan kopiatzen.
2. Muturreko pobreziaaren kontra borrokatzen duten erakundeei dirua emateko betebeharrak morala daukagu. Hortaz, jendearen gehiengoak dirua ematen die muturreko pobreziaaren kontra borrokatzen duten erakundeei.

Lehenengo kasuan, ikasleek Filosofia eta Gizarte Langintza ikasgaiko azterketan kopiatzea gaizki egoteak ala immorala izateak ez du nahi eta nahi ez inplikatzeko errealitatean ikasleek ikasgai horretako azterketetan kopiatzen ez dutenik (edo saiatzen ez dutenik behintzat). Berez, horregatik jartzen ditugu irakasleak ikasleak azterketetan zaintzen, ikasleek kopiatzen dutela dakigulako (edo, gutxienez, ikasle batzuk kopiatzen saiatzen direla dakigulako). Argudioa onartezina da ebaluazio batetik (azterketetan kopiatzea gaizki dago) ondorio faktiko bat ateratzen duelako (ikasleek ez dute azterketetan kopiatzen). Hau logikoki onartezina da. Gauzak modu batean izatea gustatzeak edo gauza zuzenak batzuk direla sinesteak ez du nahi eta nahi ez inplikatzeko errealitatean gauzak horrelakoak direnik.

Bigarren adibidean, muturreko txirokeriaren kontra borrokatzen duten erakundeei dirua emateko betebeharrak dugula pentsatzeak ez du halaberrez inplikatzeko errealitatean jendeak pobreziaaren kontra borrokatzen duten erakundeei dirua ematen dienik. Berriz ere, argudio hau zuzenean pasatzen da adierazpen normatibo/ebaluatibo batetik ondorio empiriko/deskriptibo batera, logikoki onartu ezin daitekeena. Agian gustatuko litzateke jendeak muturreko pobreziaaren kontra borrokatzen duten erakundeei dirua ematea edo pentsatu dezakegu mendebaldeko hiritar gehienek betebeharrak morala hori dela, baina horrek ez du inplikatzeko errealitatean jendeak hori egiten duenik.

20. “Ad Misericordiam” falazia

Filosofo askok uste dute emozioak arriskutsuak direla, emozioak gidatuta erabaki irrazionalak hartu baititzakegu. “Ad misericordiam” falaziak, “errukian oinarritutako falazia”

izenarekin ere ezagutzen dena, emozio bat erabiltzen du (errukia) ondorio batera ailegatzeko eta argudioaren ondorioa baliozkoa kontsideratzeko. Falazia bat da argudioaren ondorioa onartzeko baliozko arrazoiak eman beharrean, egiten dena entzulearen emozioak manipulatzeko delako, entzuleak errukia sentitu dezan eta, erruki horretan oinarrituta, argudioaren ondorioa onartu dezan. “Ad misericordiam” falazia garrantzizko falazia bat da; izan ere, kasu gehienetan, pertsona/gauza batengatik errukia sentitzeak ez du justifikatzen pertsona horrek proposatzen duena onartu behar dugunik.

“Ad misericordiam” falaziaren forma orokorrak horrelakoak izan ohi dira:

(1) X pertsonak a, b, c... arrazoiak aurkezten ditu Y ekintzaren/politikaren alde/kontra, non aurkeztutako arrazoietak batek gutxienez entzulearengan errukia eragitea bilatzen duen.

X pertsonak ondorioztatzen du Y ekintza/politika zuzena/okerra dela.

(2) X pertsonak Y baieztatzen du.

X pertsonak errukia merezi du Z arrazoiagatik, beraz, Y egiazkoa/zuzena da.

Batzuetan zilegi da errukira jotzea argumentatzen ari garenean, batez ere emozioa eztabaidatzen ari garen auziaren parte denean. Hala ere, “ad misericordiam” falazian egiten diren errukiari apelazioek ez dute inolako loturarik eztabaidatzen ari den gaiarekin eta, ondorioz, arrazoi onak eman beharrean, entzulea konbentzitu nahi dute manipulazio emozionalaren bidez soilik. Errukian oinarritutako falazien oinarritzko arazo bat da batzuetan zaila dela erabakitzea errukira jotzea zilegi den ala ez.

Hiru aspektu garrantzitsuak dira errukira jotzea zilegi den ala ez erabakitzeko: (1) Zein da ondorioa?; (2) Ondorioa proposatzen duenak ondorioa defendatzeko erabiltzen duen estrategia bakarra entzulearengan gupida eragitea al da?; eta (3) Zeintzuk izango lirateke ondorioa justifikatzeko garrantzitsuak izango liratekeen aspektuak?

Bi adibideekin agian hobe ulertuko da:

Klasera ia inoiz etorri ez den, eta klasetik kanpo ere ikasgaia ikasteko ezer gutxi egin duen, ikasle bat nire bulegoan aurkezten da. Antza denez, ikasgaia aurten gainditzen ez badu ez du gradua amaituko eta, ondorioz, ezin izango du datorren kurtsoan master batean matrikulatu.

Zein da ikaslearen argudioaren ondorioa? Badirudi horrelako zerbait izango litzatekeela: “Zuk (hau da, nik, irakaslea) ikasgaia gainditu behar didazu.” Zein da ondorio hau justifikatzeko ematen duen arrazoiak? Ikasgaia gainditzen ez badu datorren urtean ezin izango duela master batean matrikulatu. Baina, arrazoiak ondorioa justifikatzen al du? Hau da, ikasgaia gainditzen ez badu datorren urtean master batera apuntatu ezin izateak justifikatzen al du ikasgaia gainditu behar diodanik? Ez. Zergatik ez? Aurkezten duen arrazoiak garrantzirik ez duelako argudioaren ondorioa justifikatzerakoan. Normalean, ikasleei notak jartzen zaizkie kurtsoan zehar ikasleek froga batzuetan erakutsitako ezagutzen eta gaitasunen arabera (emaitzen arabera), ez bestelako faktoreetan oinarrituz. Hortaz, “ikasgaia gainditu behar didazu” ondorioa ez dago justifikatuta, datorren kurtsoan master batera apuntatu nahi izatea lotuta ez dagoelako kurtsoan zehar ikasleak froga batzuetan erakutsitako ezagutza eta gaitasunekin, ebaluatzerako orduan kontuan hartu beharreko irizpideak horiek izanik.

“Epaile, nire bezeroa banku bat atrakatzegatik 20 urteko espetxe zigorrera kondenatu baino lehen, haren egoera kontuan har dezazun eskatzen dizut. Umezurtza da eta harrera zentroetatik sartzen eta ateratzen ibili da bizitza osoa. Inoiz ez du familiarik izan eta sekula ez du sentitu pertsona talde txiki baten maitasuna.”

Zein da abokatuaren argudioaren ondorioa? Horrelako zerbait izango litzatekeela dirudi: “Zuk (epailea) nire bezeroari banku bat lapurtzeagatik jarri behar diozun kondena murriztu beharko zenuke.” Ondorio hau hurrengo ondoriotik desberdina da noski: “Zuk (epailea) nire bezeroa banku bat lapurtzeagatik libre utzi behar duzu.” Zein da kondena murriztu beharko litzatekeela ondorioztatzeko arrazoia? Bezeroa umezurtza dela, inoiz ez duela familiarik izan eta sekula ez duela sentitu pertsona talde txiki baten maitasuna. Arrazoi hauek kondena murriztu beharko liratekeela inplikatzeko dute? Ez, ez baitira logikoki garrantzitsuak. Normalean kriminalak krimenaren izaeraren, asmoaren eta legalki garrantzitsuak diren bestelako irizpideak erabiliz epaitu ohi dira. Hortaz, errudunak diren kriminalek jaso beharko lituzketen kondenak haien ekintzengatik determinatuta egon beharko lukete, ez bestelako kanpo faktoreengatik. Kriminalari krimena egin aurretik gertatutakoa ez dirudi garrantzitsua, ez baitauka loturarik krimenaren izaerarekin ez asmoarekin. Bezeroaren haurtzaroa gogorra eta tristea izan bada ere, eta kriminalak errukia inspiratzen badigu ere, auzi horiek garrantzirik gabekoak dira merezi duen kondena eztabaidatzerakoan.

Beti bezala, gauzak diruditena baino konplikatukoak dira noski. Lehenengo kasuan, adibidez, pentsa genezake Gizarte Langintza bezalako gradu baten helburua gizarte langile onak sortzea dela eta norbait gizarte langile ona izan daitekeela Filosofia eta Gizarte Langintza ikasgaia gainditu ez badu ere. Azken finean, gizarte langile on askok ezer gutxi dakite argumentazioaren teoriari, etikari edo epistemologiari buruz. Beraz, agian ez da horren problematikoa ikasle bati gainditzea ikasgaia gainditzeko ezer gutxi egin badu ere. Modu berdinean, bigarren kasuan kondena judizialen helburuari buruz pentsatu beharko genuke. Kondena legalen helburua ordainketa da? Birgizarteratzea? Beste baten bat? Kondena legalen helburu nagusia kriminala birgizarteratzea dela uste badugu, orduan, agian egokia izan daiteke kriminalaren haurtzaro gogorra kontuan izatea sententzia jartzerakoan. Agian justifikatuta egon zitekeen bezeroak kondena txikiagoa jasotzeak. Bezeroaren haurtzaro zailak justifikatuko luke inolako kondenarik ez jasotzea? Batzuk baietz erantzungo lukete noski, baina tesia defendatzen zaila dirudi. Argi dago haurtzaro zaila eduki izanak ez duela justifikatzen banku bat lapurtzeaz errugabea izatea, epaileak bezeroaren birgizarteratzea bilatzen badu ere. Bide batez, berdina esan zitekeen ikasgaia gainditzea nahi duen ikasleari buruz. Egokia izan daiteke ebaluazioan 4,7 atera duen ikasle bati ikasgaia gainditzea, baina etorkizunean master bat egin nahi izateak ez du justifikatzen ikasleari ikasgaia gainditu behar zaionik, ikasgaia gainditzeko inolako saiakerarik egin ez badu.

Amaitzeko, hor doa errukian oinarritutako argumentazioaren beste adibide bat:

Uste dut Mikeli Urteko Irakasle Hoberenaren Saria eman beharko geniokeela. Duela urte pare bat bere bikotearekin harremana utzi zuenetik, ez da berriz berdina izan. Saria ematen badiogu agian hobe sentituko da; horren tristea dirudi beti... Aurtengo urtea zaila izan da berarentzat eta, azken finean, ematen dituen bost klaseetatik bat ez dago horren gaizki.